

Akta 6/2020

**HERRITARGOAREN INFORMAZIO-
BATZORDEAK 2020KO IRAILAREN
22AN EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA POR
LA COMISIÓN INFORMATIVA DE
CIUDADANÍA EL DÍA 22 DE
SEPTIEMBRE DE 2020.**

BILDUTAKOAK

ASISTENTES:

BATZORDEBURUA:

PRESIDENTA:

KELTSE EIGUREN ALBERDI andrea

BATZORDEKIDEAK:

VOCALES:

(Jnak./Andk.)

(Sras./Sres.)

AINHOA GALDUROZ ALVAREZ (EAJ-PNV)
ARANTZA RICA ALVAREZ (EAJ-PNV)
IRANTZU URIARTE GOMEZ (EAJ-PNV)
IÑIGO URKITZA YAÑEZ (EAJ-PNV)
FRANCISCO JAVIER ELORZA HORMAECHE (PP)
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA (PP)
IBON RODRIGUEZ LARRINAGA (EH BILDU)
ITXASO MASEDA SARATXO (EH BILDU)
ASUNCIÓN OLAETA PÉREZ DE MENDIOLA (PSE-EE)
PAULA AMIEVA CLEMENTE (ELKARREKIN PODEMOS)

IDAZKARIA

LA SECRETARIA

LARRAITZ ABERASTURI IBARRA andrea

Udaletxeko Osoko Biltzar-aretoan, 2020ko irailaren 22an, Herritargoko Informazio-Batzordea bildu da, 10:18an, Keltse Eiguren Alberdi andre zinegotzia batzordeburua izanik, eta aurrez aipatutako Udalbatzako kideak bertan direla.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a 22 de septiembre, se reúne a las 10:18 la Comisión Informativa de Ciudadanía bajo la presidencia de la concejala doña Keltse Eiguren Alberdi, con asistencia de los corporativos expresados.

Batzordeburuak, bilera egiteko legeak agintzen duen adina jende badagoenez,

La Presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión,

bilkura hastea erabaki du. Horrela, deialdiko Gai-zerrendan barneratutako gaiak jorratzen hasi dira. Honako hau da emaitza:

1.- 2020KO UZTAILAREN 23AN EGINDAKO AURREKO BILERAKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA, ZUZEN BADERITZA.

Aho batez onartu da aurreko bilkurako akta, 2020ko uztailaren 23koa.

2. ARLOAREN INFORMAZIO OROKORRA

2.1. UDALTZAINGOAREN MEMORIA 2019.

Keltse Eigurenek azaldu du aurten ezin izan dela lehenago egin Udaltzaingoaren Memoria, pandemiagatik eta beharrezkoak ziren lanak sistematizatzen zituen ofizialordea erretiratzeagatik; barkamena eskatu du horregatik.

Udaltzaingoko zuzendari den Jose Soutori eman dio hitza, eta hark memoria laburtu du (informazio-batzordeko kideei bilera baino lehen helarazi zaie memoria hori). 2018. eta 2019. urteetako datuak alderatu ditu, eta, besteak beste, honako hauek nabarmendu ditu: poliziako langileen prestakuntza; abisuak, kexak eta iradokizunak koordinatzeko eta kudeatzeko zentroaren datuak; trafikoa eta bideko segurtasuna; alkoholemia- eta droga-kontrolak; Bideko Segurtasunaren Legea nahiz araututako aparkatzea urratzeagatik salaketak; herritarren segurtasunari buruzko salaketak; atxilotutako eta ikertutako pertsonak; ikerketetan nahiz genero-indarkerian egindako jarduketak; hurbileko polizia; eta ingurumenari lotuta egindako jarduketak.

Akta 6/2020

pasándose a tratar los temas incluidos en el Orden del Día de la convocatoria, con el siguiente resultado:

1.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR DE FECHA 23 DE JULIO DE 2020.

Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior de fecha 23 de julio de 2020.

2. INFORMACION GENERAL DEL AREA

2.1 MEMORIA DE LA POLICIA LOCAL 2019.

Keltse Eiguren explica que este año no ha sido posible elaborar antes la Memoria de la Policía Local, debido a la pandemia y la jubilación de la Suboficial que sistematizaba los trabajos necesarios, y pide disculpas por ello.

Da la palabra al Director de la Policía Local, Jose Souto, que resume la memoria puesta a disposición de los miembros de la comisión informativa con antelación de la sesión. Efectua una comparativa de los datos del año 2018 y 2019, en los que destaca la formación del personal de la policía, datos del centro de coordinación y gestión de llamadas, avisos, quejas y sugerencias, tráfico y seguridad vial, controles de alcoholemia y drogas, denuncias por infracciones a la Ley de Seguridad Vial y el estacionamiento regulado, denuncias de seguridad ciudadana, personas detenidas e investigadas, actuaciones en investigaciones, violencia de género, policía de proximidad y actuaciones relacionadas con el medio ambiente, entre otros.

Akta 6/2020

Amaitzeko, etxebizitzetan egon diren lapurretak aipatu ditu, horren gaineko kezka sortu baita; adierazi du ertzain-etxean jarri zirela lapurreten salaketak, eta Udaltzaingoak prebentziozko zaintza-lanak egin zituela. Azaldu du etxebizitzetako lapurreta-boladak daudenean bielorrusiarren, kosovarren edo errumaniarren talde antolatuek jarduten dutelako dela, eta taldekide horiek "in fraganti" atxilotu ohi direla edo a posteriori ikerketaren ondoren. Gehitu du Udaltzaingoak bi taldeetako kideak atxilotu zituela, eta hori lagungarria izan zela Euskadin arazo hori konpontzeko.

Paula Amievak prestakuntza-ikastaroen eta bertaratutakoen kopurua jaisteko arrazoiari buruz galdetu du. Jose Soutok erantzun dio Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Ikastegiaren eskumena dela udaltzainen prestakuntza, Udaltzaingoak batzuetan agenteen elkarrizketa-gaitasunerako eta tratua hobetzeko ikastaroak antolatzen baditu ere, eta pandemiaren ondorioz aurten akademiak ezin duela lehen eskaintzen ziren ikastaro guztiak eskaini.

Javier Elorzak galdetu du ea zergatik murriztu den aktibo dauden polizien kopurua 2018. urtearekin alderatuta. Jose Soutok erantzun du murrizketa hori udaltzainen erretiro-adina 60 urtekoa dela ezarri duen araudi berriak sortutako egoeraren ondorioa dela. Hala, egoera hori 65 urterekin erretiroa hartu duten agenteen ondoriozko egoerari gehitu behar zaio; lanpostu horiek bitarteko funtzionarioekin betetzen saiatu da, baina ezin izan da lanpostu huts guztiak bete, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Ikastegiari dagokion prestakuntza egin dutenen lan-poltsa agortu baitzen.

Keltse Eigurenek jakinarazi du hutsik dauden udaltzain guztien plazak betetzeko asmoa dagoela, baina nabarmendu du zaila dela,

Finaliza su exposición resaltando, por la inquietud generada, los robos habidos en viviendas, cuyas denuncias fueron interpuestas en la Comisaría de la Ertzaintza, realizando la Policía Local labores de vigilancia preventiva. Explica que cuando hay oleadas intensas de robos en domicilios es porque actúan bandas organizadas de origen bielorruso, cosovar o rumano cuyos miembros suelen ser detenidos o bien "in fraganti" o a posteriori tras la pertinente investigación. Añade que la Policía local detuvo a personas de dos bandas, lo que coadyuvó a la resolución de este problema en Euskadi.

Paula Amieva pregunta por el motivo del descenso de los cursos de formación y del número de asistentes. A lo que Jose Souto responde que la formación de los agentes de la Policía Local compete a la Academia de la Policía del País Vasco, sin perjuicio de que en la propia Policía Local se organicen cursos de habilidades conversacionales y de mejora del trato de los agentes, y que este año debido a la pandemia la Academia no tiene capacidad de ofrecer todos los cursos que se impartían antes.

Javier Elorza pregunta por el motivo de la disminución del número de policías en activo respecto a 2018. Contesta Jose Souto que dicha minoración obedece a la situación generada por la nueva normativa que establece la jubilación de los agentes de la policía a los 60 años, lo cual se une a las jubilaciones producidas por agentes a los 65 años, cuyos puestos se ha procurado cubrir con funcionarios interinos, no habiendo sido posible la cobertura total de las vacantes, ya que se agotó la bolsa de trabajo cuya formación corresponde a la Academia de la Policía del País Vasco.

Keltse Eiguren señala la intención de cubrir todas las plazas de agentes vacantes, si bien destaca su complejidad, dado que la bolsa

Akta 6/2020

akademian eskuragarri dagoen lan-poltsa agortzen baita 60 urterekin hartutako erretiroen eta beste arrazoi batzuen ondorioz hutsik geratu diren udaltzainen lanpostuak betetze aldera hainbat udalerrik egindako eskaera ugariengatik. Halaber, adierazi du garrantzitsua dela udaltzainek beren eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoa den prestakuntza jasotzea Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Ikastegian.

Paula Amievak galdetu du ea neurri berezirik hartuko den zenbait zonatan, hala nola Getxoko Andra Marin edo Aixerrotan, zirkulazio-istripuen kopurua areagotzeagatik. Memoriaren helburua datuak aztertu eta baloratzea dela zehaztu ondoren, Jose Soutok erantzun du planteatutako kasu zehatzean zirkulazio-istripuak abiadura-muga gainditzeagatik eta udan errepide hori gehiago erabiltzeagatik gertatu direla. Hauexek dira hartu beharreko neurriak: abiadura 30 km/h-ra murriztea eta bidezaintzako zenbait neurri hartzea, hala nola pasabide edo altxatutako bandak jartzea.

Javier Elorzak udalerrriaren errealitateari buruzko zenbait galdera egin dizkio Udaltzaingoaren zuzendariari. Zehazki, Cristóbal Colón kalearen inguruan egin den jarduketari eta trenbidearen azpitik igarotzen den tunelari buruzko informazioa eskatu du; halaber, galdetu du ea baduten Lezama Legizamon inguruan auzokoak iraintzen ibiltzen den eskale baten berri, adierazi du eskale horrek korrikalariren bati eraso egin diola, eta badagoela umeak eragotziz kezka eragiten duen tipo bat.

Keltse Eigurenek erantzun du lehenengo galdera Lurralde Batzordean egin dela jada, eta gainerako bi galderak hurrengo batzordean erantzungo direla baldin eta Udaltzaingoaren zuzendariak ez badu horren gaineko daturik.

de trabajo disponible en la Academia se agota ante las numerosas solicitudes de cobertura de las vacantes de agentes de policías locales de los diferentes municipios producidas por jubilaciones a los 60 años y otros motivos, y hace constar además la necesidad de que los agentes de la policía local estén perfectamente formados por la Academia Vasca de la Policía para el desempeño de sus funciones.

Paula Amieva pregunta si se van a adoptar medidas especiales ante el aumento de los accidentes de circulación en determinadas zonas, como Santa María de Getxo o Aixerrota. Tras indicar que precisamente el objetivo de la memoria es analizar los datos y valorarlos, replica Jose Souto que en el caso concreto que se plantea los accidentes de circulación han sucedido por exceso de velocidad y el mayor uso de esa carretera en periodo estival. Las medidas a adoptar consisten en la reducción de velocidad a 30 km/hora y determinadas medidas de vialidad como pasos o bandas elevadas.

Javier Elorza dirige al Director de la Policía Local una serie de preguntas puntuales sobre la realidad del municipio. En concreto, pide información de la actuación habida en la zona de Cristóbal Colón en el callejón y túnel que transcurre por debajo de la vía; si se tiene conocimiento de la presencia de un vagabundo en las inmediaciones de Lezama Leguizamón que insulta a los vecinos y ha atacado a algún corredor, y de un "personaje" que molesta a niños generando inquietud.

Keltse Eiguren le replica que la primera pregunta ya ha sido planteada en la Comisión de Territorio, y respecto a las otras dos si el Director de la Policía no tiene datos se responderán en la siguiente comisión.

Akta 6/2020

Jose Soutok hartu du hitza adierazteko badituela gai horri buruzko datuak. Zehazki, jakinarazi du Cristóbal Colón kaleko 7. eta 9. zenbakietako auzokoak gazteek sortutako eragozpenez kexatu direla; bestalde, kalezuloaren gaia dago. Esan du 2018. urtean Udaltzaingoak ofiziozko 29 ikuskapen egin zituela; 2019an, 35; eta 2020an, berriz, 29. Ikuskapen horiek ordu desberdinetan egin zituen aldi batean, eta 29 ikuskapen horietatik soilik salaketa bat izapidetu zitzaizen hamaika pertsonari, zigortzeko moduko arau-hausteagatik, ekainaren 11n, maskara ez eramateagatik.

Javier Elorzak aipatutako eskaleari dagokionez, Jose Soutok jakinarazi du gizon hori aurreko astelehenean edo asteartean egon zela polizia-etxean, eta bere buruarekin hitz egiten duen, garrasika egiten duen eta akuarekin margotzen duen pertsona bat dela. Ez dago inon jasota inolako kalterik eragin duenik, ez baitago horren gaineko salaketarik.

Azkenik, Javier Elorzaren azken galderari dagokionez, esan du zenbait dei jaso direla jakinarazteko Gernika parkearen inguruan zebilen gizon bat auto batetik irten zela eta gazte bati galdetu ziola ea berarekin joan nahi ote zuen. Pertsona hori identifikatu zen eta kontrolatuta dago, baina ez zaio ezer egotzi. Ertzaintza kudeatzen dabilen kasua da.

Aipatu den Cristóbal Colón kaleko egoerari buruz, Javier Elorzak esan du kale-edariari buruzko ordenantzarik ez dagoenez ezin dela ezer egin horrelako egitateen aurka; hortaz, uste du kalean edaten den alkohola arautzeko ordenantza bat izapidetu behar dela. Era berean, nabarmendu du zona horretako tunela egoera txarrean dagoela.

Interviene Jose Souto para señalar que sí dispone de datos, y en concreto, informa que en Cristóbal Colón el vecindario de los números 7 y 9 se queja por las molestias generadas por jóvenes, y por otra parte está el tema del callejón. Indica que en 2018 la Policía Local hizo 29 inspecciones de oficio, en 2019 35 y en 2020 son 29, a diferentes horas durante un tiempo, y de las 29 inspecciones sólo se ha tramitado una denuncia por infracción punible el 11 de junio a 11 personas por no portar mascarilla.

Respecto a la situación del vagabundo que refiere Javier Elorza, Jose Souto informa que el lunes o martes pasado este señor estuvo en frente de la Comisaría, y que es una persona que habla solo, chilla y pinta con acuarelas. No consta que haya producido daño alguno, no habiendo denuncias a este respecto.

Finalmente, en relación con la última pregunta de Javier Elorza, señala que se han recibido unas llamadas en las que se informaba que un señor en las inmediaciones del Parque Gernika había salido del coche y preguntado a un joven si quería acompañarle. Se identificó a la persona y está controlada, pero no está imputada. Es un caso que está gestionando la Ertzaintza.

Al respecto de la situación expuesta de la calle Cristóbal Colón, Javier Elorza cuestiona que al no haber ordenanza sobre botellón no se puede hacer nada ante este tipo de hechos, por lo que considera que es momento para tramitar una ordenanza para regular el consumo de alcohol en la calle. Hace constar asimismo el estado lamentable

Keltse Eigurenek, amaitzeko, jakinarazi du jada erantzun den gaia dela eta ez dela gai hori jorrazteko foroa edo tokia.

2.2. AGENDA EUSKERAZ, HURRENGO EKITALDIAK. 2.3. ARGIA EREITEN SARIAK

Irantzu Uriartek hartu du hitza bilera honetako gai-zerrendako bigarren eta hirugarren puntuak une berean jorrazteko.

Adierazi du irailaren 29an, 20:00etan, aurkeztuko dela Euskaraldia Muxikebarrin, eta Kutur Etxean jaso ahal direla horretarako gonbidapenak; bestalde, azaroaren 25ean, 20:00etan, Argia Ereiten sariak banatuko dira; eta Euskara Sarian izena emateko epea irailaren 28tik urriaren 23ra da.

3.- ESKE-GALDEAK.

Presidenteak jakinarazi du lehenik eta behin bileraren gai-zerrendako 3.3. puntua jorrazteko dela; izan ere, galdera horri erantzun behar dion Irantzu Uriarte bileratik joan behar da lana dela eta.

3.3. PP. Beharsarearen lan-eskaintzei buruzko informazioa eskatzea. Sarrera erregistro: 22550.

Javier Elorzak galdera irakurri du.

Irantzu Uriartek erantzun du 2018. urtean 121 iragarki egon zirela eta horietatik 39 lan-eskaintzak izan zirela eta 82 lan-demandak; 2019an, guztira 129 iragarki egon ziren, eta horietatik 52 lan-eskaintzak izan ziren eta 77 lan-demandak; 2020an, berriz, 99 iragarki, eta horietako 21 lan-eskaintzak izan ziren eta 78 lan-demandak.

Akta 6/2020
del túnel de esa zona. Finaliza Keltse Eiguren indicando que es una cuestión que ya se ha respondido y que no es el foro ni el lugar para tratarlo.

2.2. AGENDA EUSKERA, PROXIMOS EVENTOS. 2.3. PREMIOS ARGIA EREITEN

Interviene Irantzu Uriarte para tratar al mismo tiempo los puntos segundo y tercero del orden del día de la presente sesión.

Informa que la presentación de Euskaraldia será el 29 de septiembre a las 20:00 en Muxikebarri, con invitaciones que se pueden recoger en Kutur Etxea; los premios Argia Ereiten el 25 de noviembre a las 20:00 en Muxikebarri, y que del 28 de septiembre al 23 de octubre es el plazo para inscribirse a Euskara Saria.

3.- RUEGOS Y PREGUNTAS

La Presidenta informa que se tratará en primer lugar el punto 3.3 del orden del día de la sesión, debido a que Irantzu Uriarte, que ha de responder a dicha pregunta, debe ausentarse de la sesión por motivos de trabajo.

3.3. PP: Solicitud de información sobre ofertas laborales de la red Beharsarea. Registro de entrada: 22550.

Javier Elorza da lectura a la pregunta.

Responde Irantzu Uriarte que en 2018 hubo 121 anuncios, de los que 39 fueron ofertas laborales y 82 demandas laborales; en 2019 de un total de 129 anuncios, 52 fueron ofertas laborales y 77 demandas laborales, y en 2020 de un total de 99 anuncios, 21 fueron ofertas laborales y 78 demandas laborales.

Akta 6/2020

3.1. PP: Eskatzen duten ostalaritzako lokalei kategoria aldatzeko baimena emateko eskaera.. Sarrera-erregistroa: 22150.

Presidenteak hartu du hitza, jakinarazteko Lurraldeko Informazio Batzordeari bideratu zaiola galdera hori, bere eskumenekoa den gai bati (jarduerei) buruz baita, eta galdera hori erantzun dela.

Legegintzaldi honetako urte luzea kontuan hartuta, presidenteak udal-taldeei eskatu die informazio-batzorde egokiei zuzentzeko galderak; izan ere, bestela, oker zuzendutako galderak gaur egun batzordeetako idazkaritzetan bideratzen badira ere, agian noizbait galderaren bat ez da batzorde baten ere sartuko. Horrenbestez, esan du aurrerantzean eskuduna ez den batzorderen bati galderaren bat zuzentzen bazaio, galdera hori ez dela batzorde horretako gai-zerrendan sartuko, eta udal-taldeak batzorde eskudunean aurkeztu ahalko du galdera, ahozko galderen txandan, edo, bestela, hurrengo hilabeteko informazio-batzorde egokiari zuzendu beharko dio.

3.2. PP. Osasun-araudia ez betetzeagatik ezarritako zehapenak infomatzeko eskaera. Sarrera erregistroa: 22150.

Javier Elorzak galdera irakurri du.

Keltse Eigurenek erantzun du 2020ko ekainaren 1etik irailaren 10era, 566 salaketa izapidetu direla maskararik ez jartzeagatik, eta 93 bide publikoan taldean edariak kontsumitzeagatik. Zehaztu du ezarritako zehapenei buruz galdetu dela, baina adierazi du Udaltzaingoak ez duela osasun-araudia ez betetzeagatik inolako zehapenik jarri, zehapen-espedienteak instruitzeko organo eskuduna Eusko Jaurlaritzako Segurtasun

3.1. PP: Solicitud para que se autorice a los locales de hosteleria cambio de categoria que así lo soliciten. Registro de entrada: 22150.

Interviene la Presidenta para indicar que esta pregunta ha sido reconducida a la Comisión Informativa de Territorio por versar sobre una materia, actividades, que es de su competencia, habiendose dado respuesta en la misma.

Habida cuenta del año largo de esta legislatura, la Presidenta ruega a los grupos municipales que dirijan correctamente las preguntas a las comisiones informativas que corresponde, pues en caso contrario, a pesar de que actualmente las secretarías de las comisiones reconducen las preguntas presentadas incorrectamente, puede suceder que en algún momento determinado alguna pregunta no se incluya en ninguna comisión. Por lo tanto, señala que a partir de ahora si se presenta alguna pregunta dirigida a una comisión que no es competente no se incluirá en el orden del día de la sesión de dicha comisión, y el grupo municipal podrá presentar la pregunta en la comisión competente en el turno de preguntas verbales, o en caso contrario, deberá dirigirla a la comisión informativa correspondiente del próximo mes.

3.2. PP: Solicitud de infomacion de sanciones impuestas por incumplimiento normativa sanitaria. Registro de entrada: 22150.

Javier Elorza da lectura a la pregunta.

Keltse Eiguren responde que del 1 de junio de 2020 hasta el 10 de septiembre se han tramitado 566 denuncias por no portar mascarilla, y 93 por consumo colectivo de bebidas en la vía pública. Matiza que si bien la pregunta hace referencia a las sanciones impuestas, conviene indicar que la Policía Local no ha impuesto ninguna sanción por incumplimiento de normativa sanitaria toda vez que el órgano competente para la instrucción de los expedientes sancionadores

Saila izan baita. Gehitu du aurreko astean sail horrek udalari jakinarazi ziola bide publikoan edariak kontsumitzeagatiko prozeduren instrukzioa tokiko erakundearen eskumena izango dela laster, eta ildo horretan dabiltzala lanean.

3.4. EH BILDU: Aurretiko hitzorduaren kudeaketari eta zerbitzuetan izango duen eraginari buruzko informazioa eskatzea. Sarrera erregistroa: 23172.

Ibon Rodriguezek galdera irakurri du.

Ainhoa Galdurozek erantzun du Algorta eta Areetako herritarren arretarako bulegoak herritarrei zerbitzu hobea emateko egokitu direla, itxaron-lekuekin, arreta pertsonalizatua emateko mahaiekin, berehalako arreta emateko bulegoekin, herritarrek kudeaketa-lan errazak egin ditzaten bertan, hala nola errolda-agiriak jasotzea, urrutitik ziurtagiriak lortzea, eta zerbitzuen zein zergen zatikapenerako eskaeren inprimakiak lortzea. Osasun- eta prebentzio-neurriak bermatze aldera, beste administrazio batzuen ildo beretik, alde aurreko hitzordua behar da berehalako arretarako bulegoetan izapidetu ezin diren kudeaketa-lanak egiteko; telefono edo webgunearen bidez eskatzen da hitzordua.

Jakinarazi du alarma-egoera egon zen hilabeteetan herritarrentzako arretarako bulegoa soilik egon zela irekita, errolda eta erregistroko funtsezko zerbitzua eskaintze aldera, eta bulegoetara joan ziren pertsonen ere eman zitzaizela arreta. Deskonfinamendufasean, alde aurreko hitzordua ezarri zen zerbitzuaren hobekuntza gisa eta herritarren zein bulegoetako langileen osasuna zaintzeko asmoz; horretarako, itxitura bereizgarriak eta gel hidroalkoholiko banagailuak jarri ziren.

Akta 6/2020
ha sido el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco. Si bien añade que la semana pasada ese departamento ha trasladado al Ayuntamiento que próximamente se determinará que la instrucción de los procedimientos por consumo de bebidas en vía pública competirá a la entidad local y que se está trabajando en esta línea.

3.4. EH BILDU: Solicitud de información relativa a la gestión de la cita previa y repercusión en los servicios. Registro de entrada: 23172.

Lee la pregunta Ibon Rodriguez.

Ainhoa Galduroz contesta que las oficinas de atención ciudadana de Algorta y Las Arenas se han acondicionado para prestar un mejor servicio a la ciudadanía, con zonas de espera, mesas de atención personalizada y puntos de atención inmediata en los que la ciudadanía puede realizar determinadas gestiones sencillas como obtener volantes de empadronamiento, certificados a distancia, impresos de solicitudes de servicio y fraccionamientos de impuestos, entre otros. Con el objeto de garantizar las medidas sanitarias y de prevención, y en la línea de otras administraciones, se ha implantado la cita previa que se solicita por teléfono o a través de la página web para realizar las gestiones que no se pueden tramitar en los puntos de atención inmediata.

Informa que en los meses del estado de alarma solamente ha estado abierta la oficina de atención ciudadana de la Casa Consistorial para prestar el servicio esencial de padrón y registro, atendiendo además a las personas que se acercaban a las dependencias. Durante la fase de desescalada se implanta la cita previa como mejora del servicio y para salvaguardar la salud tanto de la ciudadanía como del personal de las oficinas, con la instalación de mamparas separadoras y dispensadores de gel hidroalcohólico.

Adierazi du aurreikusi dela 15 minutu egotea herritar bakoitzarekin, eta herritarren arretarako zerbitzuak langile propioekin eskaini direla; langile horiek ekainetik irailera bitartean hartu behar izan dituzte oporrak eta, hortaz, giza baliabideen kopurua murriztu da. Alabaina, beste urte batzuetako datuekin egiaztatu da udan murriztu egiten direla herritarrek eskatutako kudeaketa-lanak.

Zehaztu du alde aurreko hitzordu-eskaerak erantzun direla eta ez duela uste atzerapenik egon denik zerbitzuan; hala ere, esan du kasu batzuetan pertsona batzuek ez zeukatela alde aurreko hitzordua eskatzeko behar berri, sistema hori kanal desberdinak erabiliz zabaldu bada ere. Agian ordutegi eskuragarrian bertaratu ahal ezin izan diren herritarren agenden ondoriozkoak izan dira atzerapen batzuk. Esku-hartzea amaitzeko, nabarmendu du alde aurreko hitzordu-sistemaren bidez aurreikusitako orduan eta denboran ematen zaiola arreta pertsonari, ez dela ilararik itxaron behar, edukiera kontrolatzen dela eta oro har zerbitzua hobetzen dela pertsonalatuagoa eginez; hortaz, sistema hori mantenduko da pandemiak jarraitzen duen bitartean.

Ibon Rodriguezek "autolausengutzat" jo du galderaren erantzuna, eta jakinarazi du Algortako herritarren arretarako bulegoan egin den egokitzapenarekin bertan zegoen erakusketa-aretoa desagertu dela eta horrek artisten kexak eragin dituela. Halaber, uste du aurreikuspen-falta egon dela udan herritarren arretarako bulegoetako langileen kudeaketan; izan ere, udaletxeko bulegoa itxita egon da eta ez dira oporretan zeuden langileak ordezkatu. Era berean, atzerapenei dagokienez, bere ustez horiek baloratzeko beharrezkoa da alde aurreko hitzordua dagoenetik egin diren kudeaketa-lanak alde aurreko hitzordurik ez zegoenean egin zirenekin alderatzea; aitzitik, alde aurreko hitzorduaren sistema berez ez da zertan

Akta 6/2020

Añade que el tiempo previsto del servicio para cada ciudadano es de 15 minutos y que los servicios de atención ciudadana se han realizado con personal propio, quienes han debido disfrutar de sus vacaciones en los meses de junio a septiembre, con lo que ha podido disminuir los recursos humanos, si bien está demostrado por datos de otros años que en verano disminuyen las gestiones solicitadas por la ciudadanía.

Señala que las solicitudes de cita previa han sido atendidas y no considera que haya habido atrasos en el servicio, si bien indica que ha podido suceder que algunas personas desconocieran de la exigencia de la cita previa, sistema al que se ha dado difusión a través de los diferentes canales. Puede que algunos atrasos hayan obedecido a las agendas de los ciudadanos que no podían acudir en las horas disponibles. Finaliza su intervención haciendo hincapie en que mediante el sistema de cita previa se atiende a la persona en el horario y tiempo estimado, se evita esperas y colas, se controla el aforo y en definitiva se mejora el servicio siendo éste más personalizado, y que el sistema se mantendrá en tanto en que la pandemia continúe.

Ibon Rodriguez tras calificar la respuesta a una pregunta sencilla como de "autobombo", hace constar que con el acondicionamiento de la oficina de atención ciudadana de Algorta ha desaparecido la sala de exposiciones que había en ese lugar con las consiguientes quejas de artistas. Considera además que ha habido una falta de previsión en la gestión del personal de las oficinas de atención ciudadana en periodo estival, con la oficina de la Casa Consistorial cerrada y sin sustituciones del personal durante sus vacaciones, y que los atrasos se podrían valorar con una comparativa de las gestiones realizadas implantada la cita previa respecto al servicio cuando no ha habido cita previa, sin que el sistema de cita previa en si misma deba ser

Akta 6/2020

txarra izan herritarren nahiz bulegoetako langileen segurtasuna eta osasuna bermatzen baititu.

Ainhoa Galdurozek adierazi du batzorde publiko honetan EH Bilduk eskuragarri izan duen Getxo Berrin argitaratutako informazioa baino gehiago eman dela, eta horren harira Ibon Rodriguezek erantzun du bere taldeak egindako galdera bat erabili dela zeharkako autolausengua egiteko.

Paula Amievak herritarren arretarako bulegoetako zerbitzuari buruz jaso diren bi kexa helarazi ditu. Lehenik eta behin, premiaz errolda-agiria behar zuten pertsona batzuen kexaren berri eman du; udalaren webgunean argitaratutako informazioan ez zuten berehalako arretarako bulegoei buruzko informazioa aurkitu, bertan bakarrik adierazten baita aldez aurreko hitzordua behar dela herritarren arretarako bulegoetan kudeaketa-lanak egiteko. Zinegotziak berak egiaztatu du argitalpen hori eta, beraz, webguneko informazioa osatzeko eskatu du. Bigarrenik, dibertsitate funtzionala daukan pertsona baten kexa aurkeztu du. Pertsona hori aldez aurreko hitzorduarekin joan zen herritarren arretarako bulego batera tasa batzuk ordaintzeko; alabaina, bertan udalera joan zedin esan zioten, eta handik beste sail batera bideratu zuten. Gaur egun oraindik ez zaio azaldu nola jardun behar duen. Jakinarazi du ez duela zalantzan jartzen herritarren arretarako bulegoen langileak prestatuta egotea, baina alderdi horri dagokionez hobetzeko eskatu du.

Ainhoa Galdurozek erantzun du bi kexak gordeko dituela, eta adierazi du zerbitzua etengabeko hobekuntza-prozesuan dagoela.

3.5. EH BILDU: Getxoko Gabonetako Bonuari buruzko informazioa eskatzea. Sarrera erregistroa: 23172.

Ibon Rodriguezek galdera irakurri du.

algo malo en tanto garantiza la seguridad y salud tanto de la ciudadanía como del personal de las oficinas.

Ainhoa Galduroz señala que en esta comisión, que es pública, ha dado una información más completa que la publicada en Getxo Berri al que ha tenido acceso EH Bildu, a lo que Ibon Rodríguez responde que ante una pregunta concreta de su grupo se ha aprovechado la respuesta para hacer un atobombo sesgado.

Paula Amieva traslada dos quejas recibidas con respecto al servicio de las oficinas de atención ciudadana. En primer lugar, traslada una queja de unas personas que necesitaban de forma urgente un volante de empadronamiento y que en la información publicada en la página web del Ayuntamiento no encontraron la información de los puntos de atención inmediata, sino que en la misma se indica que es necesaria la cita previa para realizar gestiones ante las oficinas de atención ciudadana, publicación que ha sido contrastada por la propia Concejala, por lo que solicita que se complemente la información de la página web. En segundo lugar, transmite la queja de una persona con diversidad funcional que acudió a una oficina de atención ciudadana con cita previa para el pago de unas tasas, donde se le indicó que acudiera al Ayuntamiento y de ahí se le desvió a otro departamento, sin que a día de hoy se le haya indicado cómo ha de proceder. Señala que no duda de que el personal de las oficinas de atención ciudadana esté formado, pero solicita que se mejore en ese sentido.

Ainhoa Galduroz contesta que recoge las dos quejas indicando que el servicio está en un proceso de mejora continua.

3.5. EH BILDU: Solicitud de información sobre Getxo bono de Navidad. Registro de entrada : 23172.

Ibon Rodríguez da lectura a la pregunta.

Akta 6/2020

Iñigo Urkitzak esan du inoiz ez dela Getxo Bonorik egon Gabonetan; ondoren, jakinarazi du urte berezi honetako Getxo Bonoko edizioa urri-amaieran amaituko dela eta merkataritza eta ostalaritzako elkarten kontsulta-foroan eta mahaietan proposatu direla epea luzatzeko eta beste edizio bat egiteko aukerak. Bidenabar, adierazi du urriko kontsulta-foroan eskaerak aztertuko direla eta erabakiak hartuko direla.

Jarraian, ahozko galderen txanda hasi da:

Ibon Rodriguezek Argia Ereiten sarien banaketa-data aldatzea proposatu du, proposatutako eguna Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna baita. Presidenteak eskaera jaso du, eta Irantzu Uriarteri esango diola adierazi du.

Javier Elorzak esan du uztailleko informazio-batzordean bere galdera bati erantzunez jakinarazi zela aurreikusita zegoela udan udaletxeko herritarren arretarako bulegoa ixtea, eta galdetu du ea itxiera behin betikoa den edo bulego hori irekitzea aurreikusten den. Ainhoa Galdurozek erantzun du zerbitzua etengabe hobetzeko ildoan egoera aztertzen dabiltzala, baina ez dela gaiari buruzko erabakirik hartu.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, batzordeburu andreak bilkura bukatutzat jo du egun horretako 11:27ak direnean, horrela, bere emaitzarekin akta hau egin da, nirekin batera Batzordeburu andreak ere sinatu duela, hori guztia nik, idazkari naizenak, ziurtatzen dut.

Tras indicar Iñigo Urkitza que ningún año ha habido Getxo Bono de Navidad, informa que la edición de Getxo Bono de este año especial termina a finales de octubre y que en el Foro Consultivo y Mesas de las Asociaciones de Comercio y Hostelería se está planteando si se va a alargar el plazo y va a haber una nueva edición. Asimismo, señala que en el Foro Consultivo de octubre se analizarán las solicitudes y se adoptarán decisiones.

A continuación, se abre el turno de preguntas verbales:

Ibon Rodriguez propone cambiar la fecha de la celebración de los premios Argia Ereiten, ya que la fecha propuesta coincide con el Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer. La Presidenta toma nota de la petición, señalando que lo trasladará a Irantzu Uriarte.

Javier Elorza indica que en la comisión informativa de julio se informó en respuesta a una pregunta suya que el cierre de la oficina de atención ciudadana de la Casa Consistorial estaba previsto para el periodo estival, y pregunta si el cierre es definitivo o se prevé abrir dicha oficina. Ainhoa Galduroz contesta que en la línea de mejora continua del servicio se está analizando la situación, sin que se haya adoptado una decisión al respecto.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Sra. Presidenta levantó la sesión siendo las 11:27 horas de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía la Sra. Presidenta, de todo lo cual yo, la Secretaria, doy fe.